



AKELARRE - N. Basterretxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ


Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortasun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa




Lege gordailua: BI-85-98

MAHAT

2000ko maiatza 22. zkia.
125 pzt.

DIZKARIA



Joseba Arrieta

«Ikastolak izan dira gaur egun ume gehienek euskaraz ikas dezaten akuilua»

Zabalbideko Jesuitak / Artatse / Leongo boloak / Cantharellus

Bizkaia 2009

Denon artean... Denon alde.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Ogasun eta Finantza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Hacienda
y Finanzas

**Errenta eta Ondare
Aitorpen Berria**
Maiatzaren 2tik ekainaren 30era

Bizkaia

Errenta
Renta

99



901 50 30 00



Aldez aurreko hitzordua 901 11 11 02



www.bizkaia.net

bertin

A U R K I B I D E A



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Jesuitak eta Euskera	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak.	26
▶ Cantharellus	10	▶ Kirolak: Leongo boloak	27
▶ Berton dugu! Lan istripuak	12	▶ Kultura: Txalaparta	28
▶ Bakarka: Joeba Arrieta	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19	▶ Betikoa	31

Periodikue atara doskue bizkaitarren, ta ni pozik, jodeeeeer! Oin sikieran fazillago leiduko dot, ze honeik batuen kontuek ondiñokarren kostau egitten jataz, gero! Ta letxes! Leiduten hasi te..... Bestiek beste kostetan jat, barrez! Tire! Dana ez, ze lenengo egunien batan batek egin zauen artikulue gurien moduko euskera baten ta ondo! Baie ha lehena ta azkena ixen da! Lastima! Dana dala, pentsetan dot neu ixen nazela entendidu zeuen bakarra, hori bere lastima bai lastima! Hemengo euskerie hain gitxik jakitie ta jesuitak hona ikisten etortie be! Gurie inok ez dau ikisi gure, antza. Ta Joseba Arrieta ta enparauek urtietan biharrien hamen ta gurie inok ez

dau entenditen, Txurdinagan sikieran, ze Santutu partien daukien zaratiegaz ta astrapaliegaz arameoa bere ez litike entendiduko, holantxe egitten daurie berba ba hangoak, gedarrez ta gitxi, ta euskeraz bada, gitxiago. Ta sasoi baten, Joseba Arrieta ta multie ipinten eutsien "Joseba!" kalien baten bateri gedar egitteagatik, hori uzena ez dala kristianoa, ta Jose ta esan bier dala, ezpabere multieporgamberro... Geur, enkanbio, ez dakit zer egingo leukien, ze entzun bere, kostauko letxakie entzutie. Baten batek, dana dala, gusura entzungo leuke hemeko zaratie, han urru-nien daukien pakie barik.

Firmaute: Matxorrión



M E T R O K O A K

BEGOÑAKO ALBACETE KALEAREN IZENAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako Errepublikaren aldeetako bat beren beregi nabarmendu zan, 1936-1939ko guduaren osteko urigintza garandu zanean: Santutxu.

Bada, urigintzaren garante hori jazo zanean, hainbat eta hainbat kale sortu ziran batera, eta sortze horregaz batera horreei kaleei izena ipini beharra suertatu zan. Orduko erregimen politikoa- ren agintariak orduan hartu eben honako erabagi hau: horreei kaleei bataioa egingo jaken, Espai- niako enparauko probintzien izenak ipiniatz; modu horretara, jakina, Bizkaiko probintzia traido- reari Espainiaren zantzuak erantsiko jakozan, ha lurralde galdua Espainiagaz modu sakonagoan lotzeko-edo.

Beti bere, horreek izenok ipinterakoan, erizpide bat erabili zan: Euskal Herrira, osotoro, eta Biz- kaira, beren beregi, etorkinak bialdu ebezan probintzien izenak jarriko jakezan Bilboko kale barriei. Izan bere, Begoñako lurraldea ez zan bakarria izan arazo hori jasan behar izan ebana, hor dagoz, Bilbon, San Inazio auzoa, Erre- kalde eta abar.

Erizpide haren arabera, kaleak izentatzeko, lehenengo kaleari ezarri jakon, alfabetoaren arabera, Espainiako probin- tzietan lehenengoa zana: Albacete.

Kale honek Luis Luziano Bonaparte eta Iturriaga kaleak batzen dauz.

Izena 1957. urtean jarri zan.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila - Bizkaiko Foru Aldundia)



**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

Jesuitak Mahatserrian euskalduntzen dira

JESUSEN LAGUNDIKOEK ZABALBIDEN PISU BAT DAUKATE EUSKARA IKASI ETA BULTZATZEKO



Jesuitek Mahatserrian ikasten dute euska- ra. San Inazio Loiolakoak fundatu zuen ordeneko eleizgizon gazte erdaldunek gure artean dagoen pisu batean egiten dute euskalduntzeko ahalegina, euren euskara hobetu edota euskara hutsez bizi gura duten kideen laguntzaz.

Joana Etxebarria

Aspaldiko kontua den arren, Santutxun dagoen pisu honen berri ez duzue askok izango. Jakin ezazue Zabalbide auzoan dagoela eta bertan euskararekiko konpromisoa duten jesuitak bizi direla.

Esan bezala, Zabalbideko pisua jesuitek euskera ikasteko asmoarekin sortu zen. Jesuita gehienak hiri handietatik datoz gaur egun, hor daudelako ikastetxeak eta jakina denez eurentar askok eta askok ez dakite euskeraz. Zoritxarrez jende ugari sartu da jesuitetan euskaraz jakin gabe. Dela erdaldun hutsak izateagaitik, dela euskara hobetu nahiagaitik, dela euskaraz bizitzeko grinagai- tik, Zabalbideko pisuko jesuita gazteek geure hizkuntzarekiko lotura estua mantendu dute azken hamarkadetan.

Etxe honek hogeitamaika bat urte izango ditu eta

Ikasketak egitera datozen jesuita gazte erdaldunak hemen euskalduntzen dira

bertan jesuita estudiantetako euskera ikasteko beta dute. Jesuitek formazio luzea dute eta nobiziatua Zaragozan egin eta gero Filosofia eta Teologiako ikasketak burutzen dituzten gazteak Zabalbideko etxe honetan bizi dira. Leku ederra da Zabalbide euskaraz ikasteko.

IKASLE ETA IRAKASLE

Jesuitek argi ikusi zuten gaurko gizartean funtsez- koa zela euskara jakitea. Izan ere, Euskal Herrian lan egiteko bertako hizkuntza menperatzea oso garrantzitsua zela iruditzen zitzairen zenbaiti. Hasiera baten zazpi bat jesuita joan ziren bertara bizitzera eta harrezkero asko dira bertatik pasatu direnak. Egun sei dira bertan bizi direnak, lau Deustuko Unibertsitateko irakasleak dira eta besteak ikasleak. Bi baino ez dira euskaldun zaharrak baina denak ere ondo baino hobeto moldatzen dira euskaraz mintzatzen. Matikon daukaten beste pisuan erdara erabiltzen dute baina Zabalbidera joatean ahalegin majoa egiten dute gure hizkuntza erabiltzearren.

A T U G U R R A



**Gaur egun sei dira
pisan bizi diren
eleizgizonak**

EUSKAL JESUITEN BURUA

Pisu honetaz Lucio Agirre arduratzen da, bera arinago ere bertan bizi izana da. Deustuko irakasle honek Gaurgiron hartu zuen parte.

Garate anaiak -Roman eta Gotzon- ere hemendik pasatu dira eta hauek, denok dakizuen bezala euskal kulturaren munduan nahiko entzunak dira. Gainera Ignazio Etxarte oraingo Euskal Herriko jesuiten nagusiak etxebizitza honetan ikasi zuen euskaraz hitz egiten.

Berez, pisu honetako jesuitak ez daude auzoan oso murgildurik, gustura egingo luketen arren. Bi urte inguru egiten dituzte hemen eta jende berria banan banan iristen dira. Hori bai! Denok dakigun bezala gure paraje honetan hainbat urtez bokazioa handia egon den arren, urteen joan etorriak bokazioak gutxitu dituela. Beraz gero eta jesuita gutxiago daude.

Gainera, auzokide bermeotar bat badute eta honekin egiten dituzten solasaldiek ere euskara aberasten laguntzen diete.

Zabalbidekoa ez da jesuitek euskaraz ikasteko eta bizitzeko antolatutako pisu bakarra. Donostian beste komunitate bat dago euskaraz bizi dena. Bertako buru, gainera, Zabalbiden euskaldundu zen Koldo Cacho dabil.

Gotzon Garate: «Etxe honen eginkizuna garrantzi handikoa izan da»

Gotzon Garate jesuita eta idazle ospetsuak ederto asko ezagutzen du Zabalbideko pisua eta horregaitik badu azken hogeita hamar urteotan bertan jorratutakoaren berri. Eta ez du duda izpirik ere. Egindako lana kalifikatzeko eskatutakoan berehala ihardesten du: «Handia». Elgoibartarraren iritiz Zabalbideko pisua zeharo emankorra izan



Zabalbideko pisan bizi diren jesuitetako batzuk barriketan

da, uzta oparoa ekarri du. «Lan handia egin du etxe horrek», azaltzen du. Behar handi hori bide bitatik abiatu da. «Batetik, azken urteotako jesuita gazteak hiriburuetatik datozelako. Bilbo, Donostia edo Gasteiztik etorritako horietatik gehienak erdaldun hutsak dira. Etxe horretan ikasi egin dute eta, ondorioz, euskaraz egiteko gauza direla atera dira handik», zehazten du.

Herriarekin lan egin nahi bada, herriaren hizkuntza ezagutu beharra dago. Filosofia horren ondorioz, «hemen beharrezkoa da euskaraz hitz egitea». Baina Garatek azpimarratzen duenez, Zabalbideko pisuaren jarduna bere ordenaren barrurantz ez ezik euskal gizarterantz ere zuzendu da, bere nortasun kulturalaren defentsa indartzera alegia.

EUSKALTZALEAK

Bigarren bide horren adibide garbia izan liteke Koldo Cacho, «Tuterako semea bera». Jesuita elgoibartarrak dioenez, «hemen euskaldundu zen eta geroztik lan izugarria egin du euskararen alde. Ez bakarrik bere lana euskaraz egin duelako, baizik eta bere eginahala euskararen alorretara zabaldu duelako». Azken finean, Koldo Cachok eta bera bezala

han euskaldundu direnek «euskaraz egiteaz gain euskararen alde ere egin dute lan».

Zabalbideko pisuaren eragina Donostia aldean nahikoa nabarmena da. Koldo Cacho hantxe dihardu eta Gipuzkoako Herri Irratiko zuzendaria, Txema Auzmendi, Santutxuko pisutik igarotakoa da. Izan ere, Auzmendi ordizierra da jaiotzez baina, Gotzon Garateren oroitzapenen haritik, «txikitatik zekien euskara galdu zuen eta hor, Zabalbiden, berreskuratu zuen».

ETORKIZUNA

Jesuita elgoibartarraren ustetan, Zabalbideko pisuak badu oraindik eginkizunik. «Gaur egun sartzen diren jesuita gazte gehienak erdaldunak dira. Hori horrela mantendu bitartean erdaldunak euskaldunduko ditu», argitzen du.

Zabalbideko pisua ez bezala, Deustuko komunitatean jesuiten arteko harremanak erdaraz dira gehien bat. Izan ere, bertan bizi diren 40en bat eleizgizonetatik gehienak erdaldun hutsak dira. «Anaiarekin eta beste batzuekin baino ezin dut euskaraz egin», zehazten du Garatek. Donostian, ostera, «Loiolatxo» etxeke komunitatean euskara barra barra entzuten da.

“Hemendik atera direnek euskaraz egiteaz gain euskararen alde ere egin dute lan”

GAIVAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908- 45 16 22



SANTVTXV SPORT



Xabi Herrera

*Zutik lurrean
kondenatu
Zaren langile
tristea
Nekez ginen
elkarganatu
Indazu albiris-
tea...*

*...Oro gudura
hala,
bihar izan
dadin
Internazionala
pertonaren
adin
(Internazionala-
ren zatiak)*

**Sindikatu
abertzaleen deiari
erantzunez 20.000
lagun manifestatu
ziren Bilbon.**

Gure mugetatik kanpo ere mundu osoan egin ziren maiatzaren leheneko manifestazio hauek. Deialdiak bake-tsuak izan ziren baina Alemaniako Hanburgo hirian esaterako, istilu larriak gertatu ziren polizia eta manifestaziokoen artean, emaitza hogeit lagun zauriturik eta hamar atxilotu izan zirelarik.

Britainia Handiko hiriburuan kapitalismoaren aurka eginiko martxa ekologistari ere ez zioten modu baketsuan amaitzen utzi. Honen emaitza hiru polizia zauritu eta hamaika atxilotu. Berlinen azkenean ez zen istilurik egon, besteak beste maiatzaren leheneko manifestazioa polizi neurri handiekin egin zelako.

Errusian urteroko irudia errepikatu zen eta komunistek Moskuko kaleak hartu zituzten langileen eskubideak errespeta daitezen eskatuz. Kuban aldiz, Iraultzaren plaza txiki geratu zen, nahiz eta aurten protagonismoa guztiontzat arras ezaguna bilakatu den Elían ume kubatarrak izan zuen.



Xabi Herrera

Beraz, ohikoa den bezala aurtengo maiatzaren lehenak ere munduko bazter guztietan izan zuen oihartzuna, oraindik irabazteko mordoia dugula gogoratziz.

oo oo oo oo oo

Lanbroa

oo oo oo oo oo

**MESÓN
URETXE**

Santutxuko poteo gunean

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK

Joseba Arrieta


Elkarrizketa

Mahatserrian bizi da aspalditik euskara eta ikastolen bultzatzailea den Joseba Arrieta. Francoren garaian Ikastolen Elkartearen lehendakari izan zen, ondoren Kirikiño Ikastolako gerente aritu zen bost urtez eta gaur egun, Zaintza Batzordean ari da lanean. Gizon honek badu bai ikastola eta Mahatserriko euskararen inguruan zer esanik.



**«Ikastolak izan dira gaur
egun ume gehienek
euskaraz ikas dezaten
akuilua»**

*Testoa: Joana Martínez
Leire Altamira
Argazkiak: Iñigo Azkona*



“Ikastolen mugimendua kasualidade bati esker sortu zen”

BERTON: Kirikiño-Karmelo ikastolen sorreran partehartze zuzena izan zenuen. Nola gertatu zen hura?

JOSEBA: Beno, nik esango nuke ikastolen mugimendua kasualidade bati esker sortu zela. Kontutan izan behar dugu ikastolak 1964. urtean jaio zirela, Franco bizirik eta indartsu zegoen bitartean, eta guri nahiko zaila iruditzen zitzaigun horrelako proiektu bat aurrera ateratzea. Baina Resurrección María de Azkue ikastetxeak, gaur egun Lauro ikastola denak, euskeraz irakasteko baimena eskatu zuen Madrilan eta baietza eman zioten. Dirudienez, gaizkiulertu bat izan zen, "euskeraz" barik "euskeraz" irakatsi nahi zutela ulertu zuten arduradunek eta ondorioz, baietza eman zioten. Gero ikaratu egin ziren, baina hanka sartzea egin zegoen eta ikastolak pixkanaka-pixkanaka hortik sartu ziren.

BERTON: Urte asko pasa dira ordutik eta gaur egun Kirikiño eta Karmelo bi ikastola ezberdin dira. Nola gertatu zen banaketa hura?

JOSEBA: 1977 urte inguruan halako nahaste bat eman zen gizartean politikaren eraginez eta eragin hori ikastola barrura heldu zen, tendentzia ezberdinak sortuz umeen sozializazioaren inguruan. Eskola publikoaren inguruko eztabaida sortu zen; uste genuen ikastolek ordura arteko martxa galduko zutela administrazioaren esku utziz gero. Beraz, ikastola barnean eztabaida hori piztu zen gizartean ematen ari zen eztabaidaren islada bezela.

Azkenik, gurasoek ikusi zuten arazo horrek

ezin zuela bide horretatik jarraitu. Guraso batzuek, halako egoera ikusirik, ikastolaren deiarri ez ziotela erantzungo pentsatu genuen. Badakizue, gurasoentzat seme-alabak dira mundu honetako gauzarik preziazatuena, eta etorkizunean umeei inori erresponsabi-



lidadeak eskatzekotan gurasoengana joko dute. Orduan erabaki zen ikastola bitan banatzea: alde batetik Karmelok aurrera jarraitu zuen lehengo ize nagaz, eta bestetik Kirikiño sortu zen.

BERTON: Ikastolak sortu zireneko garaitik hona aldaketak eman dira, D ereduko eskaintza, esaterako, asko handitu da. Nola moldatu dira ikastolak egoera berrira?

JOSEBA: Guk arazo hori garai hartan ere ikusten genuen. Mugimendu guztiek bere sorreran indar handia izaten dute, baina pixkanaka-pixkanaka mugimenduak zabalitzen doazen neurrian indar hori, abiadura galduz doa. Beraz, gizarte barruan horrelako zerbaite gertatzeko arriskua zegoen. Guk ez genuen uste hori gauza ziurra zenik, baina beldur ginen horren ondorioz euskerazko irakaskuntza ez ote zen galduko.

Zorionez, hori egon da akuilu bat, ikastolak izan dira akuilu, eta horren eraginez ikusi da nola gaur egun umerik gehien D eredu euskaldunean matrikulatu diren.

BERTON: D eredu bai, baina... ikastolek nabaritu al dute matrikulazio beherakadarik euskerazko eskola publiko zein pribatuen kompetentziaren eraginez?

JOSEBA: Herri txikietan bai, Bilbon bertan ez. Baina hori ikastetxe guztietan nabaritu da, ez ikastoletan bakarrik. Ume gutxi jaiotzen dira eta ondorioz, guztien artean banatu behar dira. Baina Bilboko ikastolak, eta orokorrean ikastola guztiak hartuta, matrikulazio aldetik ondo ibili dira. Kirikiñok adibidez, ez du hutsunerik sentitu, ezta?

Orain badirudi jaiotze tasak berriro gora doazela eta orduan arazo hori konponduko da, nahiz eta egia izan herri txikietan, Elorrioren esaterako, nabaritu dutela falta hori. Baina ez ikastolak direlako; baizik eta kontestu osoan ume gutxi jaio direlako eta ikastetxe ezberdinen artean banatu behar izan dutelako.


BERTON: Baina, eskola publiko eta pribatutik irteten den jendearen artean ezberdintasunik dagoela uste al duzu?

JOSEBA: Ba, hori ezagutzea ez da batere erraza baina beno, esango nuke batez ere lehenengo urteetan ikastoletan lanean zebilen irakaslegoa euskerarekin oso identifikatuta zegoen. Orduan, kontua ez zen



“Ume gutxiago jaio arren, Bilboko ikastolak matrikulazio aldetik oso ondo dabilta”

hizkuntza soilik irakastea, ze hizkuntza barruan beste mila gauza dagoz. Hizkuntza bat jakitea ez da kultura baten jabe egitea: zuk jakin dezakezu Frantsesa eta frantses kulturari buruz ezer ez jakitea. Horregaitik, hizkuntzarekin batera ikasi behar dira bere kondairak, nondik datorren, nondik doan, herri horren bizimodua, urteetan zehar emandako aldaketak, zelan heldu den gaur egungo egoerara...Eta ikastoletan hori zaindu izan da beti eskola publikoetan baino gehiago. Hori niretzat gauza ziurra da. Orduan, gaur egun ikastola batekoak edo eskola publiko batekoak, zeintzuk urtetzen diren hobeto jantziak euskerarekin bere kulturaren inguruan, argi dago.



“Euskaraz ez badugu egiten euskarak iraungo du baina ez dakigu noiz arte”

«Euskaraz jakitea ez da nahikoa»

Joseba Arrieta, urteek ematen dioten eskarmentuaren haritik, baikor agertzen da euskararen etorkizunaz. Hala ere, gure hizkuntza hementxe bertan bestelako arazoan mende jautziko ote den beldur da.

BERTON: Zelan ikusten duzu orain ikastolen etorkizuna?

JOSEBA: Momentu honetan, neure iritziz, ikastolek badaramate euren martxa; oztopoak lehen baino gutxiago eta txikiagoak dira. Alde horretatik nik uste geroa ziurtatuta daukatela, gizarteak ziurtatu dituen gauzen barruan sartzen dira ikastolak. Beraz, etorkizuna ona da, itxaropentsu begiratzeko modukoa, eta ziuraski ez da oztoporik egongo gaur egun daramaten martxarekin jarraitzeko.

BERTON: Orduan, euskalduntze prozesua martxa onean ikusten duzu, ezta?

JOSEBA: Euskalduntze prozesuaz euskeraz jakitea ulertzen baduzu bai, baina hor arazo txiki bat dago. Hizkuntzak erabiltzeko dira, ez jakiteko. Gure gizarte barruan bada hainbat jende ingelesa, frantsesa, alemana... dakiena, baina ez dute inoiz hango kulturekin harremanik izan. Horiek dira hizkuntza bat dakiten batzuk. Euskerak arrisku hori badu, orduan euskera

erabilia izan behar du, komunikatzeko bitartekari bat izateko. Eta horretarako erabiltzen ez ba dugu, ba iraungo du, baina ez dakigu noiz arte. Orduan euskeraren geroa? Nik uste gure esku dagoela. Eta jende gaztearen artean nik uste dut, ikusten dudana gaitik, euren arteko harremanak ez direla euskeraz. Ez dakit hor erregistro batzuk dauden, esate baterako, kirolak erregistro bat deko, teknikak beste bat... Eta orduan erregistro jakin batzuetarako erderara jotzen dugun errezena delako... Baina hori ez da egokia euskerak ere erregistro horiek badituelako.

BERTON: Horrelakorik espero al zenuen?

JOSEBA: Egia esan ez genuen uste horren azkar iritsiko ginenik horrelako euskalduntze egoera batera, eta gizartearen bertan horrenbesteko indarra hartuko zuenik. Euskaldunak ez diren gurasa asko eta askok bidaltzen dabez umeak ikastoletara, euskeraren arazo honetan sartu dira. Batzuk egongo dira kontzientziatuta horretarako bidali dabezenak eta beste batzuk lanpostu bat lortzeko edo bidaltzen dabezenak. Baita ere badaude euren umetxoek euskeraz ikas dezaten nahi ez dutenak. Gizarte batean denetatik egon behar du, eta aniztasun hori ikastetxeen hautaketan ere isladatu egiten da.

ZER DERITZOZU TRANBIA MAHATSERRITIK EZ PASATZEARI?




NIDIA SANTUTXU

Txarto; Bilbotik pasatzen bada... zergaitik ez gure auzotik?



AKETZA BOLUETA

Hobeto! Bestela auzoa obraz beterik egongo litzateke...



IDOIA SANTUTXU

Danetik behar dogu, zenbat eta traste gehio!!




AIMAR MATIKO

Niri berdin zait. Ni hemendik ibiliko naiz berdin.berdin, arazorik gabe.



NEREA ALDE ZAHARRA

Ez da hemendik pasatuko? Orain enteratu naiz... Beno, agian noizbait helduko da, ez?



MAXIMO SANTUTXU

Oso ongi! Badekogu hainbeste transporte publiko; azkenean oztopo bat izango zan kaleetatik ibiltzerakoan. Gainera, metroarekin nehikoa dekogu.



BEGOÑA SANTUTXU

Faena bat. Hobeto zen honaino heltzea, horrela hobeto egongo ginatete komunikaturik



JOSUNE ALDE ZAHARRA

Ez dut pentsatu... Egia esanda ondo legoke hemendik pasatzea, baina kostea ere kontutan hartu beharko genuke.



Zure publizitatea hemen

944 735 448



MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

TXURDINAGA ETA OTXARKOAGA ZARATA GUTXIEN SUFRITZEN DUTEN AUZOAK DIRA

Mahatserritar gehienak kaleko zaratots maila altuegiez inguratuta bizi dira

Otxarkoaga eta Txurdinaga auzoek osatutako barrutia Bilboko lasaiena da. Horixe da Udalaren aginduz orain gutxi Labein enpresak egindako kale zarata-maparen ondorio-etarik bat. Ikerketa berak argitu duenez, Mahatserriko gainerako barrutiek (Uribarri eta Begoña-Santutxu-Bolueta) Bilbon ohikoak diren hots mailak sufritzen dituzte. Hala ere, mahatserritar gehienak, Txurdinaga eta Otxarkoagakoak tartean, zarata larregiz inguratuta bizi dira. Kutsadura akustikoaren eraginpean, beraz.

Zarata mapa osatu duten adituek hotsak Bilboko bazter guztietan neurtu dituzte egunez eta gauez, astegunez eta jaiegunez. Emaitzekin batuz bestekoa egin ostean zarata neurriak hiru ataletan sailkatu dituzte. Nazioarteko elkarteek darabilten irizpideen arabera, kaleko zarataren maila "onargarri" gorenara 55 dezibelioko marran dago. Hortik gora zaratotsak molestia handiak sortzen ditu (55-65 dezibelio bitartean) eta 65tik haragotako kalte larriak ekar ditzake.

Neurketok egin eta gero Otxarkoaga eta Txurdinagako kaleak lasaiena direla ondorioztatu dute adituek. Izan ere, auzo horietako biztanleen %46 maila "jasangarrien" muga markatzen duten 55 dezibelio baino gutxiagoko zarataz bizi dira. Beste horrenbeste (%40a) 55-65 erdibideko zarataren molestia nozitzen du. Azkenik kaltegarri suerta litezkeen 65 dezibelioko baino zarata ozenagoak pairatzen dituzten herritarrak auzotako %13a dira. Bi multzook batera hartuta Bilboko alderdi lasaiena be gehiago dira hots handiegien mende bizi direnak.

Ikerketaren egileek diotenez, Otxarkoaga-Txurdinaga barrutiak zaratots indizierik baxuenak sortzen dituzte gehien-gehiena lorategiz eta parke zabalez inguratutako etxebizitzak direlako. Egia da Zumalakarregi etorbideaz eta Egirlelatik -Santo Domingotik- jaisten den errepideaz gain barrutian ez dagoela trafiko han-



Argazkia: Xabi Herrera

Mahatserriko beste lekutan, trafikoaren benetazko zarata arazoa da

diko kalerik ezta zarata ozenik sortzen duen bestelako jarduerarik. Gaur egungo lasaitasuna, hala ere, hein batean sikan zapuztuko da Ibarsutitik Oruetaraino doan autobia berria edegiko dutenean.

URIBARRI ETA BEGOÑA-SANTUTXU

Uribarri eta Begoña-Santutxu-Bolueta barrutietako azkerketaren emaitzak paretsuak dira. Uribarriko biztanleen laurdena hots gutxiago alderdian bizi da. Beste horrenbeste dira zarata altuenen mailak jasaten dituztenak. Eta populazioaren erdia 55-65 dezibelio arteko esparrutan bizi da.

Begoña-Santutxu-Boluetan, osterara, %32a da zaratots apalez inguratuta daudena. Herritar gehienak maila erdiko hotsen presiopean ematen du bizimodua. Eta %22a ingurune zeharo zaratatsuan murgilduta bizi da. Txostenaren egileen ustetan, barruti biotako panorama antzekoa da «hiritako trafikoaren ezaugarri tipikoak dituztelako: zirkulazio handiko errepideak batetik eta gainerako alderdi erresidentzialak bestetik».

Ikerketaren emaitzarik goibelenak Bilboko erdikaldeak sortu ditu. Abandoko barrutiko populazioaren erdia (%48.5) zarata maila gorenaren azpian bizi da, 65 dezi-

berkin

Mahatsberriak



TRAFIKOAREN ERRUA

Labein enpresak txostenean emandako datuak aintzat harturik kutsadura akustikoaren eragile nagusia trafikoaren erabilpenagaz lotura estua daukate. Herritarrek emandako datuen arabera, motorrak, kotxeak, klaxonak, sirenak, kamioiak eta zarama batzeko ibilgailuak izaten dira hots handienak sortzen direnak.

Adituek zehazten dutenez, trafikoaren eragindako zaratotsak honako iturrietatik sortu ohi dira: abiada handiko auto jario etengabea, gehiegizko abiada, kamioi eta autobusak, motorrak -gehien molestatzen ei dutenak-, klaxonak sarritan sakatzea, zoluaren egoera, eta, oro har, kotxe larregi ibiltzea. Arazoa txikiagotzeko garraio publikoari bultzada, kontrol sistema estuagoak eta garraio alternatiboak -txirrintulei- aukera ematea proposatzen dute txostenegileek.

Trafikoaz gain, trenak, obrak, industriak -Bilboko kasuan erreka ondoko kaltetakoak- eta bestelakoak aitatzen dituzte zaratagile gisa. Azken hauen artean gau giroko alderdietako pub eta antzekoak ematen dute zeresana. Anbulantzia, suamatatzaile eta poliziaen sirenotsak be nabarmentzen dira hots gaiztoen zerrenda honetan.



Argazkia: Xabi Herrera

Bai Txurdinagan, bai Otxarkoaga trafiko handiko arazoa ez dago

belio horietatik gora alegia. Beste erdiak (%43) molestiak eragiten dituzten hotsak nozitzen dituzte egunero. %7a baino ez da kale zarataren maila "onargarriaz" inguratuta daudenak.

Adituen iritziz, Abandokoa lako panorama jasangaitzak Bilbo erdiko trafiko ikaragarria du iturburu. Izan ere, egunean zehar Abandoko kaleetan pilatu ohi dira hiriburu bizkaitarrak irensten dituen auto iladarik gehienak. Trafikoa bide zehatzetan metatu beharrean erdikaldeko kale guztietatik barreiatzen da gainezka egin arte.

EUROPARI BEGIRA

Bilboko Udalaren aginduz eginiko zarata-mapa honek Europako Elkarteko gainerako bazterretako emaitzak ere batu ditu gure hiriarren eta gainerako arteko aldea errazago antzemateko asmoz. Europako Elkarteko populazioaren %40a zarata gutxiago alderdian bizi da. Beste horrenbeste 55-65 dezibelio bitarteko tokietako biztanle da eta %20 inguru da hots ozene-giak pairatu behar duena.

Datuok kontutan hartuta, Txurdinaga-Otxarkoagako barrutiak Europako Elkartek batuz beste baino baldintza goxoagoak dituela ematen du. Uribarri eta Santutxu-Begoña ere ez dira batuz besteko horretatik oso urrutik.

Europako Elkarteko emaitzarik onenak Danimarkak eskaintzen ditu. Herrialde horretako populazioaren %80a zarata maila baxuko alderdian bizi da. Maila ertaineko kaleetan %15a eta zaratots handiko tokietan %5a baino ez.

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

DARDOKA
TABERNA

S.M. Ascension plazan
Santutxu

Baserritik
etxerainoko
OKELA ZERBITZUA

Eskaerak egiteko:
- Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02
- Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

E.H.N.E.

BASERRITIK ETXERA. Etxerainoko zerbitzua. Telefonoa: 94 433 48 02. Faxa: 94 433 48 04.

ERRIKARIA

ERRIKARIA

MINA DEL MORROKO LEHENENGO ETXEBIZITZAK ZORTZI ETA BEDERATZI PISUKO BLOKEAK IZANGO DIRA

Mina del Morro poligonoko lehenengo etxebizitzak eraikitzen ari da Eusko Jaurlaritzak. Oraingo obrak amaitutakoan zortzi eta bederatzi alturako blokeak egongo dira zutunik. Hauek plan osoaren lehenengo fasea baino ez dira. Geroago Ollerías ondoko orubean bostehun etxebizitza gehiago altxatuko dituzte. Poligonoa parke bat atonduaz borobilduko dute. Gaur egungo obrak Mirafloreseko aldatzetik Párroco Unzeta etxe-multzoraino doan kale berriko eskuinean dihardute. Bide berriaren eta Mina del Morro ikastetxe publikoaren artean zazpi bloke altxatuko dituzte. Etxeok zortzi alturakoak izango dira hiru izan ezik. Hiru horiek bederatzigarren solairua ere eukiko dute.



Bloke batzuetako formak biribilak izango dira, batez ere erdian eraikiko direnak. Honela, plaza eliptiko bat osatuko da pergola baten laguntzaz. Etxeen arteko eremuak parketxo gisa atonduko dituzte. Gainera, trafikoari zabalik egongo den kale bat zabalduko da

BIGARREN FASEA

Eusko Jaurlaritzak fase hau burututakoan bigarrenari ekingo dio. Orduan Ollerías ondoko orubea urbanizatu-ko du. Bertan bostehundik gora pisu eraikiko dira, bi aldeetan nabarmen banatuak. Batetik, Mirafloresko igoe-raren parean lerroan altxatuko dituzten blokeak. Hauek lau eta bederatzi altura bitartekoak izango dira.

Etxeon eta Ollerías auzoaren artean aldatzean gora doan orubean, ostera, bi eta hiru alturako etxeak egingo dituzte. Lehiaketa publiko batean irabazle atera zen proiektuari segika, pisuok hegoalde eguzkitsuaren arkitektura-ren ikutu ezaguna eukiko dute. Diseinuaren egilea Madrilako arkitekto gazte talde bat dugu. Aldatzean gora doazen etxe hauetan behekoaren teilatua goikoaren terraza izango da.

Mina del Morroko poligonoa osatzeko lehengo mendial-dea parke gisa atontzea besterik ez da faltako. Hortaz gain, Mirafloresen bestaldean, errepidea eta errotanda handia gurutzatu ostean, parkea eta etxebizitzak eraikiko dira.

BIZKAIKO MANEXEK UDABERRIRAKO EUSKAL JAIA PRESTATU DUTE

Ekainaren lehenengo asteburua hautatu dute "Bizkaiko Manexak" taldekoek aurtengo Udaberrirako Euskal Jaia egiteko. Hurrengo urteetan kultur hamabostaldi bihurtuko dena aurten lau egunetan zehar gauzatuko da. Baina hel-burua, bat bera: euskal kulturak dituen adierazpen anitzak gure begi aurrean paratzea eta hortik kontzientziazio lana-ri ekitea.

Aurten asti faltaz ezinezkoa izan bada ere, manexek dato-zen urteotan maiatzaren bigarren erdia kultur hamabostal-diaz betetzeko borondatea agertu dute. "Gure herrialdea kulturaz blai egingo dugu: ikastolak, antzokiak, museoak, frontoiak, kaleak, ... arnasten dugun airean gure kultura egongo da".

Aurtengo egitaraua ekainaren batean hasiko da Kafe Ant-zokian Juan Carlos Pérezek, gaueko hamarretatik aurrera eskainiko duen kontzertuaz. Biharamunean, barikua, arrat-saldeko zortzietan euskal musikak daukan mitorik handie-naren bisita eukiko dugu: Mikel Laboa, Arriaga antzokian. Ekainaren 3an, euskal pelotaren ordua joko du. Arratsalde-ko bostetatik aurrera Bilboko Deportivo klubaren pilotale-

kuan profesionalen arteko pala eta zesta partiduak izango dira. Gabaz, Arriaga antzokian, iluntzeko bederatzietan Jose Antonio Urbeltzen "Alakiketan" dantza ikuskizuna eukiko dugu gozagai.

Udaberrirako euskal jaia domekan zarratuko da. Eguerdiko hamabi t'erdietatik aurrera Guggenheim museoko plazat-xoan lore jokoak izango dira -Euskitze eta Amuriza, Erra-mun Martikorena kantaria, ...- eta hiruretan herri bazka-ria. Bazkalostean, ostera be Erramun Martikorena eta Dant-za Jaia bost t'erdietatik aurrera.

GABRIEL ARESTI GOGOAN

Bizkaiko Manexek ekitaldia antolatu nahi izan dute Gabriel Aresti poeta bilbotarraren heriotzaren hogeita bos-garren urteurrena dela eta. Horretarako kultur emanaldia paratzeko asmotan ibili dira baina azkenean atzeratu egin dute. Irailean egin gura dute Bilbok euskal kulturari apor-tatu dion poetarik handienaren gorazarrea.

"Bizkaiko Manexak" 1997an sortu zen Zuberoako Sohüta-ko ikastolaren eraikuntza proiektuari babesa emateko asmoz. "Esperientzi polit honen arrakastak Bilbon eta Biz-kaia osoan euskal kulturaren zabalpen lanean jarraitzea animatu gintuen", dinoe manex bizkaitarrek

KULTUR ERROTA, EUSKAL KULTURA FORMATO TXIKIAN

Topaguneak abian jarritako kultur zirkuituak 150 ekital-di eramango du herri eta auzoetara, Mahatserrria barne Euskara elkarte eta herri komunikabideen topaguneak maiatzean jarri du abian aurtengo Kultur Errota. Azken urte biotako eskarmentua ontzat harturik Euskal Herriko herri eta auzo askotara euskal kulturaren ekitaldiez hurreratu-ko dira. Hitzordu guztiek baldintza bi beteko dute: formato txikiko kultur emanaldiak eta dohainik izatea.

Mahatserrrian Ander Lipusen antzerkiarekin eta Xabier Amurizarekin agertuko da. Topagunearen ekimenez sortutako Kultur Errotak 150en bat kultur emanaldi eramanez nahi dituen herri eta auzoetara abendua bitartean. Horretarako hogeita lau artistaren laguntza jaso du, ospetsuak eta hasi berriak nahastean. Tokian tokiko euskara elkarteek antolatzen dituzte zerrendako artistekin aukeran nahi dituzten ekitaldiak. Besteak beste, Jabier Muguruza, Urbeltzen Dantza Ganbara, Beñat Aixiari eta Mixel Etxekopar, Morau, Xabier Montoia, Igelaren Banda, Itzal Antzerkia eta Anje Duhalde dira Topagunearen proposamenagaz bat egin duten artistak.

Izenok ikusita Euskal Herriko bazter guztietako artistak tartean daudela esan liteke. Eta Euskal Herri osoari ireki nahi den errota da Topagunearena. Bizkaiko 18 euskara elkarte, Gipuzkoako 20, Arabako hiru eta Nafarroako lau dira euren inguruetara Kultur Errotaren jira bira eramango dutenak. Iparraldeko herrialdeetan be emanaldiak antolatuko dira, bertako kultur elkarte laguntzaz. Hauxe da Kultur Errotaren hirugarren edizioa. 1998an

sortu zen eta orduan hiru hilabeteetan 24 kultur ekitaldi egin zituzten. Igaz ehunen batera iritsi ziren. Asier Iturrigak, Kultur Errotaren teknikariak dioenez, "lehenengo bi urteetako balantzea oso positiboa izan zen. Formato honek hainbat herri txikitara heltzeko aukera ematen du. Eta artistak, publikoa eta antolatzaileak, denak pozik ateragin'''. Ondorioz, aurten apustua handiagotu da eta, esan legez, 150 dira gauzatu-



ko diren ekitaldiak.

MAHATSERRIAN

Kultur Errotaren jirabira Mahatserrrian barrena sartuko da Asapala euskara elkartearen eskutik. Lehenengo hitzordua maiatzaren 26an bertan. Arratsaldeko zortzi eta erdietan Ander Lipus antzerkilariaren txanda. Azkenaldion ezagun bihurtzen hasia da artista markinar gazte honek egia esaten ei dituzten pertsonaien gaineko monologoak lantzen ditu: zoroak, umeak eta mozkor-rak. Azken hauek dira Santutxuko Sorgintzulora ekarri behar zituenak. Ander Lipusi orain aste gutxi eman zioten euskal artistek aurtengo aktore errebelazioaren saria. Ekainaren 16an Xabier Amurizaren ordua izango da. Bertsolari etxanorak "Lazkao Txiki"ren antologia eka-rriko du besapean Maria Reina eleizara Lazkaomendiko erraldoi haren jarduna ezagutzera emateko asmoz. Ander Lipus eta Xabier Amurizaren ostean ekitaldi gehiago izango dira baina, seguruenez, uda pasatu ondoren etorriko zaizkigu.

LUTXO EGIA MAHATSORRIA, "GABRIEL ARESTI" IPUIN LEHIAKETAN IRABAZLE
Mahatserrira etorri da aurten Bilboko Udalak urte-rik urte Gabriel Arestiren omenez antolatzen duen ipuin lehiaketaren txapela. Lutxo Egia begoñarra izendatu du aurten irabazle lehiaketako epaima-haiak. Egia horrelakoetan eskarmentu handi eta hainbat sari duen Xabier Mendigurenen aurretik gelditu zen. Idazle begoñarra egun euskarazko irak-aslea da Zazpi Kaleetako Lizardi AEK euskalte-gian. Prentsan hainbatetan argitaratu badu ere, igaz plazaratu zuen bere lehenengo liburua, ani-malien munduari eskainitako olerkiez bete.

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K

ARTATSE, BAZTERKETA GAINDITZEKO AHALEGIN EMANKORRA

Gizarte sail behartsuenetako umeentzat beren beregi pentsatutako hezkuntza programa integratzailea burutzen dute Otxarkoagako eskolan

Otxarkoagako Artatse eskola publikoan gizarte sail behartsuenetako umeen arazoak gainditzeko programa berezia indarrean dago. Bertako irakasleek traba asko eta ikasteko interes gutxi euki ohi duten hurrekin hezkuntza teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte. Inguruaren inplikazioa, familia eta boluntarioena batez ere, lanaren zutabe-etako bat da. Orain arteko emaitzak, adituen ustetan, oso interesgarriak dira. Are



interesgarriagoak egunotan Barakaldo aldean baztertuen integrazioari trabak jartzen ari zaizkiola jakinda. Artatse eskolako lan taldeak berak Mondragón Unibertsitateak argitaratzen duen "Jakingarriak" aldizkariaren martxoko alean azaldu bezala, ikasle asko arazoz betetako guneetatik datoz. Horren ondorioz, motibazio urria, interes gutxi, prestakuntzarako eta buru-prozesuak aberasteko oso pizgarri gutxi, elikadura desegokia eta aisialdiaren kontrol eza jasaten dute, besteak beste. Zailtasunok kontutan hartuta, eskolako irakasleen klaustroak "Ikasteko Elkarteak" proiektua abian jarri zuen 1995-96 ikasturtean. "Helburu nagusia ikasleen itxaropena goratzea da, ikaskuntza bizkortuz", argitzen dute. Harrigarria bada ere, abantaila gutxi-ko ikasleak ikasteko erritmo geldoagoa behar duen iritzieran aurka "erritmo horiek azkartzea planteatu zen, eskolan arrakasta lortzeko ahalik eta baliabiderik eta metodologia-estrategia onenak erabiliz".

ZUTABEAK

Proiektuaren zutabeak, aipatu lan taldeak aitortu legez, ezkola-komunitateko partaide guztiak izan dira: fami-

liak, irakasleak, gainerako langileak, boluntarioak eta, jakina, ikasleak eurak be.

Zutabe horiengan sostengaturik, proiektuak aldaketa batzuk ekarri zituen Artatseko ordura arteko bizimoduari. Batetik, harrera zerbitzua muntatu zuten ludotekan, goizeko bederatzietatik hamarretara, boluntario biren ardurapean. Bestetik, teknologia berriak lehen hezkuntzako ikasmaita guztietara zabaldu zituzten: denak dute astean behin saio bat informatikako gelan matematikak, gaztelania, euskara, ingelesa eta ingurunearen ezaguera lantzeko.

Gainera, barikuetan ohiko ikasgela erritmoa hautsi eta lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleak hainbat lantegitan elkartzen dira: marketeria, artea, ordenagailuak eta birziklapena. Hortaz gain, artearen bidez ikastea, ingelesa txiki-txikitatik hastea, animaliak eta landareak jagotea eta osasunean hezteko proiektuak dira apustu zail honetan aurrera egiteko bideak.

Plan osoa errealitate bihurtzeko aita-amen parte hartzea funtsezkoa izan da. "Ikastetxeak ez die arazoak dardenean bakarrik deitzen, baizik eta beraiek ikastetxean egoten dira irakasleekin ikasten (alfabetatzeko eskole-

tan), guraso gisa prestakuntza hobetzen (eztabaida eta heziketa-taldeak), zereginak partekatzen, boluntario gisa lanean... guztiok irakatsi eta ikasi baitezakegu gauza asko", aitortzen dute Artatseko lan taldekoek "Jakingarriak" aldizkarian argitaratutako emandako testuan.

Gurasoek gain, boluntarioak -laguntza handia izan arren euren lana musutruk egiten dutenak- eta praktikatutako ikasleak -Prestakuntza zentrotatik etorritakoak- aitatzen dituzte funtsezko osagai gisa.

ROSALINDA ETA FEDERICO

Artatseko lan taldekoen hitzetan, "eguneroko bizitza ez da inoiz aspergarria, beti gertatzen da zerbait". Eta segituan honako istorio hau kontatu zuten: "Behin Valero agertu zen (ikas-tetxeko neska-mutil pila baten aitea) eta txatarra bila zihoala topatu dituen antzara bi ekarri dizkigu, ez baitu zalantzarik izan Artatse dela hegaztixor horientzako lekuri onena. Goizeko bederatzia arte zain egon eta hegaztiak adoptatzeko proposatu dio zuzendaritzari taldeari".

Segituan jarri ei zen martxan "bi antzara zurtzen integrazio prozesua. Abere eta Landare Proiektuko ordezkariak bilera egin dute. Hegaztietan izena bilatzeko proposamena egin da. Antzaren marrazkiak egin dira. Zer dira antzarak? Antzara horien bizitza eta etorkizuna. Zer jango dute? Nork emango die jaten? Informazio zientifikoa bilatu da, informazioaren azterketa egin da gure esku dauden baliabide guztiak erabiliz (liburutegia, interneta, ordenagailu programak), eta azkenean informazioaren argitalpena. Eta denok lanean. Gure antzarak Rosalinda eta Federico dira".

Gure giza ingurutik kanpo dauden esperientzia berrien nahiak eraman gintuen Bilboko Artatse eskolara. Nahi hauek izan ziren, bertan aurkitutako errealitatea Euskal Herrian gerta zitekeenik ez genuen uste eta.


Bertan aurkitu genuen egoera, bai haurrei eta bai familiei dagokionez, famili barneko eta inguruko zailtasunez bete zegoen; besteak beste: langabezia, drogak, gaixotasunak, familia apurketak, errekurso ekonomiko ezak eta zorrak. Ondorioz, haur hauetan motibazio eta interes gabezia handia dago ikasteko orduan. Haurrak emozionalki ezegonkorrak ziren eta hitzaren aurretik biolentziaz baliatzen ziren. Gainera, nabarmena zen izaten zuten lo falta eta elikadura desegokia.

Egia esan, lehenengo astea oso gogorra egin zitzaigun. Batetik, haurren jokabideen aurrean ez genekielako nola jokatu; bestetik, beraien beharrak zeintzuk ziren garbi ez izatean, ez genekielako nola erantzun.

Hasierako gure nahasmen hau, azkar hasi zen desagertzen, tutorek zailtasun hauen aurrean naturaltasunez eta afektuz beteriko jokabidez erantzuten zutela ikusi baikenuen. Honi esker, haurren beharrak zeintzuk ziren eta nola erantzun behar ziren ohartu ginen. Hurrekin indibidualki lan egiteaz gain, garbi kusi genuen familiekin lan egitea beharrezkoa zela, eskolara soilik ez mugatzeko hezkuntza soziala eta intelektuala.

Aipaturiko alor honetan, Artatse eskolak instituzionalki, bolondresen laguntzaz, ikaragarriko lana egiten zuela ikusi genuen. Klaustro guztiaren artean erlazio

Irakatsaioak Artatsen:



ona zegoen, eta harreman horrek proiektu hau indartu egiten du. Irakasleen arteko batasuna beharrezkoa ikusten dugu, haur hauekin lan egiteak desgaste psikologiko handia eskatzen duelako. Esperientzia honi esker, haurren anztasunez jabetu gara, eta irakasle bezala honen aurrean erantzun bat izaten ikasi dugu. Aipatu, klaustro eta eskola eredu egkoi bat ezagutzeko aukera dugula.

Bukatzeo, esan beste kultura bat ezagutzeko aukera izan dugula, eta lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu haur hauei guztiei, gu geu aberasteaz gain bizitzaz erakutsi diguten guztiarengatik.

Iñaki Gonzalez eta Zigor Quintanilla. Irakasleak. Mondragón Unibertsitateko HUHEZILKO ihasle ohiak "Jakingarriak" aldizkaritik hartua.

DAYTON
Reagge-festa
taberna
Santutxuko poteo gunean


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu

BĀSTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza

SAN ADRIAN (1.132 m.) BAIZA-GAIN (1.181 m.) Lizarragatik


Bilbotik Iruñerako bidean Etxarri Aranatz herrira heltzean esku-maldera joko dugu Lizarraga herrirantz, bertan utzi genuen kotxea.

Errepide nagusitik igonez Lizarragako azken etxeak igaro ondoren, lehen biragunean esku-malderantz ateratzen den bide edo pista zabala hartuko dugu. Hau hartu bezain laster burdin ate (A) zeharkatu eta apur bat aurrerago urgordailua aurkitzen da. Ez litzateke gehiago argitu behar zeren eta pista honetatik jarraituz mendiaren hegia lortuko baitugu, hala eta guztiz ere bidean ikusi genuena adieraziko dugu.

Urgordailua igaro eta gero alda-pa gogorra hasten da, laster pagadi baten sartuko gara, honez gero lehen biragunea pasatu ondoren ezker aldean eta bide ondoan iturri (B) gozo bat dago. Hurrengo biragunean mendiaren hormarekin egingo dugu topo; ezker aldetik beste pista bat ikusten den arren guk ekarritakoari jarraituko diogu eskuinalderantz, ia bertan haitzulo bat ikus daitekeelarik. Pagadia amaitzerakoan pasabide zabal batetan egongo gara, hau da hegia (1.050 m.) toki honi "Lizarraga" edo "Etxarri Aranatz" deritzote. (C)

Hemendik aurrera oso ondo markatuta dagoen gurdi-bidetik abiatuko gara ezkererantz, eta ordu laurden barruan "SAN ADRIAN" basilizan eta tontorrean kokatuko gara (1.132 m.). Ordu bete dagoeneko.

Gure lehen helburua beteta dagoenez, eguraldi ona eta ikuspegi ezin hobea, otartekoa jan eta zahatoari zurrutada on batzuk eman ondoren, berriz itzuli ginen "Lizarraga" edo "Etxarri Aranatz" pasabidera; hemendik gailurreriatik aurrerantz jo genuen eta ordu erdian "Baiza-Gain" (1.181 m.) tontorrean aur-



kitu ginen, goi-erpin eta txartel kutxa ditu.

Aipatutako pasabidetik "Baiza-Gain" tontor bitartean bi trikuharri (D) ospetsu ikus daitezke (Portugaina I eta Portugaina II) izenez ezagutzen dira, baita tumulo batzuen astarnak ere tontorrean.

Lehen trikuharriaren ondoan, beheerantz abiatzen den pista bat dago marroiz eta horiz markatuta, pista hau Bakaikoa herrira doa.

Boloak Leongoen erara


Txurdinaga eta Otxarkoaga bitartean dagoen bolatokia eraiki zeneko lehengo fasearen inaugurazioa 1997ko apirilaren 24an izan zen. Zabaltze ofiziala, aldiz, urte bereko irailaren 21ean. "La Vaguada" deritzon bolatoki hau, ezaugarri teknikoek dagokionez, Estatuan hobekien horniturik dagoenetakoa da; honen adibide, iaz bertan ospatutako Espainiako txapelketa dugu. Buztin eta harez egina dago eta 32,50x 11,00 metrotako neurriak ditu. Bestetik, beharrezko instalazioen jabe da baita ere: drenatze eta saneamendu sistema, ureztapena eta zaintze mantentuzko argiak ditu, besteak beste. Honetaz gain, parean kokaturik duen eraikinean jokalarientzako aldagelak, komunak eta biltegia biltzen ditu.

"La Vaguada" kudeatzen duen kluba "Virgen del Camino" - orain dela 37 urte sortu zen "Hogar Leonés"eko kirol sailaren ekimenez eta gaur egun Bizkaiko bolo federazioaren barne aurkitzen da. Klub honek estatuko txapelketa ugari irabazi ditu bikoteka zein banaka (Jubenil-kadetetan edota infantil-alebinetan) eta taldeka lortutako posturik aipagarriena 1996an lortutako bigarren postua izan da.

Adin guztiak jokoan

Gaur egun 80 lizentzia baino gehiago ditu eta gazteak eta emakumeak suspertzeko ahaleginetan dabilza. Aipatu beharra dago, emakumeak bolotetan jokatzeko hasi zireneko data 1994koa dela eta geroztik pixkanaka pixkanaka areagotuz joan dela euren presentzia. Edonola ere umeek, gazteek, agureek eta adin eta kondizio guztiakoko jendeak praktikatu dezakeen kirola da.

Jokatzerakoan ekimena eta partehartzea bultzatzen da, autokontrola sustatzen da eta gainera gaitasun sortzailea garatzeko lagungarritzat jo daitekeen jokoa da. Jaurtikitzen diren bola edo pilotak arte egurrez eginikoak dira eta boloak, ostera, palomera egurrezkoak. Leonen, euren lurraldeko bolo modalitateaz gain tanga, bolo berriano, calva, bolo Riañes eta bolo Maragato bezalako modalitateak jokatzeko dira.



"La Vaguada" orain dela hiru urte zabalduta zuten.
(Argazkia: Iñigo Azkona)

Gabriel Aresti institutuaren ondoan kokatua dagoen bolatokia ia egunero ikus daiteke Leongo boloen praktika eta hurrengo txapelketa garrantzitsua urrian ospatuko den "Villa de Bilbao" izango da.

Boloak edozein kondiziotako jendeak praktikatu dezakeen kirola da.

AMAIA PIEDRA IURRETAN GARAILE

Amaia Piedra santutxutarrak azken urteotan ohikoa izan den nagusitasun afrikarra hautsi eta lurretako hiri lasterketa irabazi zuen. Probak zituen 4.710 metroetan Keniako Nancy Omwenga eta Tanzaniako Margaret Ngadi izan zituen arerio nagusi santutxutarrak. Hala ere, azken metroetan eginiko sprintari esker keniarraren aurretik sartu eta lasterketa irabaztea lortu zuen 16 minutu eta 23 segundutako markarekin. Bi hauengandik hiru segundutara korrikalari tanzaniarra sartu zen. Laugarren postua, ordea, Cris-

tina Petite abadiñarrantzat izan zen. Bestalde, maiatzaren 7an Urtuellan egindako "Meatzaldeko krolean" lehenengo bi postuak atleta bien artean banatu zituzten. Kasu honetan Petite izan zen irabazlea, lasterketari hasieratik bertatik erritmo ikaragarria jarri eta gero. Igaz lehenengo izan bazen ere, aurtengoan bigarren postuagaz konformatu behar izan zuen Amaia Piedrak. Mahatsorriak Petite baino hamabi segundu beluago iritsi zen helmugara.

SANTUTXU H.T. TXAPELDUN

Azkenengo zazpi partidak jarraian irabazi ondoren, eta arerio zuzenen estropozuak direla medio, Santutxu Hockey Taldeak patinen gaineko Ipar Ligako txapela lortu zuen. Honetarako, Ugaoren kontra 3-4 gailendu ziren eta Donostiako Ibaiondok Gasteizen 4-3 amore eman zuen Aurreraren aurka. Honela, Santutxuk eta bigarren sailkatu den San Antoniok, lehenengo mailan postu bat lortzeko asmoz borrokatuko dute.

EUSKAL MUSIKA

MAHATSERRIAN@TXAHAL APARTA TALDEAGAZ.COM

Santutxuko txalapartariak Asapalaren laguntzaz txalaparta jotzen irakasten dute euskaraz



Euskal musikaren aitzindaria den txalaparta, interneten nabigatzeko aukera ez du galdu. Txalaparta aspaldiko garaietako musika bada ere, eta sarea puntako teknologiaren adierazle, bat egin dute non eta Mahatserrian, nola ez. Eta kontu borobila izan dadin, txalaparta jotzen euskaraz ikasteko aukera be ematen zaigu.

Iratxe Ruiz

Duela hiru bat urte Txalaparta eguna ospatzen hasi zen auzoan. Musika honekiko zaletasuna eta interesa zuten hainbat pertsonen aurrean, taldea sortzeko ideia bururatu zitzaion lagun talde bati. Egia esan, jotzen irakasten duten talderik ez dago eskura ez auzoan ezta inguruetan ere.

Gaur egun hogeit bat pertsona ari dira euskaraz txalaparta jotzen ikasten

Idea, lan handia burutu ostean errealitate bihurtu dute. Gaur egun hogeit bat ikasle klaseetan baitago. "Ezusteko harrera izan dute eskolek, haseran beldur ginen inor agertuko ote zen. Klasetara mota guztietako jendea dator: ikasleak, langileak, gazteak, helduagoak,...". Hauek dira arduradun lanetan aritzen den zortzikotearen adierazpenak.

IKASTAROAK EUSKARAZ
Asapala Euskara Elkartearekin harremanetan jarri ostean, Sorgintxulo gaztetxeko lokaletan jotzeko beta izan

Aste Nagusian Txalaparta Egunerako diru eske ibili ostean 400 pezeta lortu zuten

zuten. Lokala ezinbestekoa zitzaien, kideek diotenez, txalaparta ez delako trikitixa edo txistua modukoa. Azken hauek kaletik jo daitezke eroso-eroso. Gaur egun lau laguneko bost talde osatu dira txalaparta jotzen ikasteko ikastarootan. Ordutegiak goizez zein arratsalde jartzen ditu eskolak, aukeran. Astean behin elkartu ohi dira ikasle eta irakasleak. Maisu santutxutarrez gain Galdakaoko Dabid eta Iker aritzen dira. Asapala Euskara Elkartearen laguntzaz gauzatu dira eskola hauek. Ikastaroaz gain, esan bezala, Txahal Aparta taldea aspalditik egun berezietan jaialdiak ospatu ohi ditu. Izaera euskaldun, sozial edo politikoa duten ekitalditan parte hartzen dute. Hala pasa dan urteko Aste Nagusian non Txalaparta Egunerako diru eske aritu ondoren 400 pezeta atera zituzten. "Benetako arrakasta, dudarik gabe", dinosku, irribarretsu, taldekide batek.

KONTAKTUAK
Doinua ezaguna dugu, eta zailtasuna duda mudan jartzeko joera daukagu aldi berean. Makilak oholen gainean astintzea besterik ez dela edo ordukin lortzen den doinua, alegia. Zalantza hau argitu ez, baina jotzean zirrara berezia sentitzen dela ziurtatu digute. Gogoak piztu bazaizkizu eta "Txahal Aparta K.E" taldeagaz bat egin nahi izanez gero, hurrengo helbide elektronikoan sar zaitez edota Santutxuko taberna ezaguna den taldearen "egoitzatik" pasa zaitez (txahala@euskalnet.net). Oraingo kurtsoa laister amaituko bada ere, ekainean bertan beste bat hasteko asmoa dago. Goizez zein arratsalde daude eskolak antolatuta ... EZ DUZU AITZAKIARIK!!!



Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarik gabeko Lanbidearen Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia



ASAPALA
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tfnoa. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz
ARROPAK ★
ZILARRA ☾
OPARIAK ★
Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel & Fax: 473 42 88 ● 48004 BILBO

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
94 473 54 48

horoskopoa

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Zer, nahiko agobiauta azkenaldi honetan? Trankil egon ekaitzaren ostean beti dator barealdia, eta orainarte izandako arazo guztiak konponduko dituzu.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Badirudi eguraldi ona hurbiltzen dela, mmmm... bai! Laster hondartzara joateko aukera izango duzu, baina ez ahaztu krema, bestela...
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Ez ibili etorriko denari bueltak eta bueltak emoten eta aprobetxatu oraingo unea. Badakizu Carpe diem eta etorri behar dena etorriko da, baina ez izan presarik.
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Udaberria heldu eta aurpegiak garunak irten zaizkizula? Ez kontatu zure penak inori. Badakizu aste pare batzuk pasa ondoren zure aurpegi zoragarritik desagertuko direla.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Kinielan jolasteko azkenengo aukera duzu orain, gutxienez datorren urterarte... Ez galdu esperantza! Gutxienez Lekei-tiora oporretan joateko aukera baduzu.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Badirudi bihotz kontuetan momentu onenean zaudela eta hainbeste lore agertu direla zure inguruan, baina... kontuz ibili batzutan gauzak ez dira izaten diruditena.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Zelako begitxuak dituzun! Amak asko ikasten duzulako dela uste du, baina... ez dozu uste telebista aurrean ordu gehiegi ematen dituzula?
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Zure umore aldaketak gehiago kontrolatu beharko zenituzke, orain orain arte zure ingurukoak aguantatu zaituzte baina agian egunen baten ez da horrela izango...
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Zer, lanaz itota, eh? Ba gauzak lasai hartu, bestela ezer egin beharrean falta zaizunaz pentsatzen emango duzu hilabetea. Horrela ez duzu ez bata ez bestea egingo.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Hori da aurpegia azkenaldi honetan dekozune!! Jaia egitea ona da, baina ez ahaztu lo egitea ere garrantzitsua dela osasunerako.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Zer oporretan pentsatzen jada? Lasai! Zuk uste baino hurbilago daude, baina ez ahaztu aurretik azterketa madarika tuak daudela...
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Aprobetxatu, hau izango da zure hilabetea eta zerbait lortu nahi badozu.... AURRERA!! Azkenean zuk proposatuko guztia lortu egingo duzu. Zorte on amodioan ere!

agenda

MAIATZA

-MAIATZAREN 26: KULTUR ERROTA ASAPALAREN ESKUTIK: ANDER LIPUS. SORGINTZULO GAZTETXEAN. ARRATSALDEKO ZORTZIETAN.
-MAIATZAREN 27: BIZKAIKO EUSKAL KANTU TXAPELKETAKO AZKEN KANPORAKETA. SANTUTXUKO SAN FRANCISQUITO ELEIZAN, ARRATSALDEKO ZORTZIETAN.

EKAINA

-EKAINAREN 1: BIZKAIKO MANEXEN UDABERRI JAIA: JUAN CARLOS PEREZ. KAFE ANTZOKIAN. GAUEKO HAMARRETAN.
-EKAINAREN 2: 555 TALDEA. JAZZ KONTZERTUA. BEGOÑAKO AUZOETXEAN.
-EKAINAREN 2: BIZKAIKO MANEXEN UDABERRI JAIA: MIKEL LABOA. ARRIAGA ANTZOKIAN. ILUNTZEKO ZORTZIETAN.
-EKAINAREN 3: BIZKAIKO MANEXEN UDABERRI JAIA: URBELTZ. "ALAKIKETAN". ARRIAGA ANTZOKIAN. GAUEKO BEDERATZIETAN.
-EKAINAREN 4: BIZKAIKO MANEXEN UDABERRI JAIA: EGUNEAN ZEHAR LORE JOKOAK, MUSIKA ETA DANTZA GUGGENHEIMEN AURREAN.
-EKAINAREN 9: DR BLUES & BAND. PAUL LAMB & THE KING SNAKES AND EARL GREEN. ERROMOKO PLAZAN.
-EKAINAREN 10: MAGIC SLIM & THE TEARDROPS
-EKAINAREN 11: LITTLE CHARLIE AND THE NIGHTCATS
-EKAINAREN 16: KULTUR ERROTA ASAPALAREN ESKUTIK: XABIER AMURIZA. TOKIA ZEHAZTU GABE DAGO LERROK IDATZI ORDUKO.

betikoak



MAHATSERRIKO TXAKOLINDEGIAK

Goiko erretratu "Bilbo eta bere itsasadarreko herriak postatxarteletan" liburutik hartua dogu. Luis Amann eta Román Alonsok paratu eben. Hona agortzeaz dagoan mende hau jaio barria zala gure aitite-amumek aldarte ona pasetako behar eben guztia: txakolindegia bateko mahastien gerizpean jesarri, aurrean pitxar bete txakolin, eskuetan kitarrie, buruan txapela -gizonezkoek- eta inguruan adiskideak. Txakolindegia guzti haiek desagertu ziran -eskabadoriek eroan ebezan- baina, zoridxonez, ez ebezan aldean musikie, zurrutiek eta laguntasune eroan. Erretratuari beittuten para eta, momentutxo batez sikaner, orduko txakolindegixetako giroaz gozatuko gara. Baietz!

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tinoa:
94 473 54 48
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Martínez,
Joana Etxebarria,
Irene Berro,
Iratxe Ruiz,
Leire Altamira,
Erdoitza Martínez,
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKE-TAZIOA:
Iñaki Berastegi

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez,
Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde,
Igor M. de Vidales,
Santutxuko Bertso Eskola,
Igor Zorrozuza,
Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoe-txea

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000